

<b>7. Amorrua eta inpulsiotasuna kontrolatzeko estrategiak hobeto kudeatzen bultzatzea.</b>	<p><b>Hasiera:</b> lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. Aurreko saioan eginikoa eta egindako ebaluazioa gogoraraziko diegu (aurreko saioaren amaieran hitz egindakoa).</p>		5'	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute.</li> <li>• Begirunez hartu dira iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe.</li> <li>• Modu aktiboan hartu du parte proposatutako jardueretan.</li> </ul>
	<p>Erregulazio emozionala lantzeko hiru dinamika proposatzen dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zergatik haserretzen naiz?</li> <li>• Zergatik haserretzen naiz? (Ikaslearentzako fitxa)</li> <li>• Haserrea kontrolatzen dut</li> <li>• Barkamena eskatzen badakit</li> </ul> <p style="color: blue; text-align: center;"><i>Irakaslearentzako gida</i></p>	50'	
	<p><b>Amaiera:</b> saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p>		5'	